

Salbuezen bat ezartzen da Unibertsitateko Masterren Gestiorako Arautegiko 1.e) artikuluan. Artikulu horren arabera Graduondoko Batzordeak eman behar die baimena master ikasketak egiteko EUEkoa ez den atzerriko titulua daukaten pertsoneri, bat etorrira Unibertsitateen Idazkaritza Nagusiaren 2023ko azaroaren 16ko Akordioan adierazitakoarekin, zeinaren bidez argitaratu zen Unibertsitateen Kontseiluaren Erabakia, jasotzen dituen abenduaren 5eko CNU/1309/2018 Aginduan ezarritako baldintzak betetzeko gomendioak (aginduak zehazten ditu atzerrian lortutako Psikologiako unibertsitate titulu ofiziala duten pertsonen bete beharreko baldintzak "Osasun Psikologia Orokorra" masterrean sartzeko).

Jarraitu beharreko prozedura honako hau da:

1. Interesdunek Psikologia Fakultatean aurkeztu beharko dute eskaria, bai eta eskatzen diren agiriak ere. Agiri horiek aztertu ondoren, UPV/EHUko Psikologia Fakultateak Psikologiako Ikasketen Egiaztatze Batzordeari (PIEB) helaraziko dio eskaria.

Eskari egileek agiri hauek aurkeztu behar dituzte:

- a) Eskari egilearen nortasuna eta nazionalitatea egiaztatzen duen agiria, jatorrizko herrialdeko agintari eskudunek emana.
- b) Espainiar lurraldean bizi diren atzeritarren kasuan, eskari egilearen adierazpena baimena emanaz nortasuna egiaztatzeko, bat etorrira apirilaren 28ko 522/2006 Errege Dekretuan aipatutakoarekin, non jasota dagoen ez dagoela nortasun agiriaren kopia aurkeztu beharrik Estatuko Administrazio Orokorrean edo horri lotutako edo horren menpeko erakundeetan administrazio prozedurak egitean. Hala ere, eskari egileak berariaz adieraz dezake ez duela horretarako baimenik ematen, eta horrelakoetan, nortasuna egiaztatzeko agiriren baten kopia aurkeztu beharko du (agiria indarrean egon behar da).
- c) Egiaztatu nahi den titulua, edo titulu hori eskatu dela ziurtatzen duen agiria.
- d) c) Eskari egileak titulua lortzeko egin dituen ikasketen ziurtagiri akademikoa, non, bestek beste, honako hauek agertu behar diren: ikasketen iraupen ofiziala ikasturtetan neurtua, irakasgaiak, irakasgai bakoitzaren ordu kopurua eta, egoki izanez gero, lortutako ECTS (European Credit Transfer and Accumulation System) kredituen kopurua.

- e) Kasuan kasuko tasa ordaindu dela ziurtatzen duen agiria, hala eskatzen bada unibertsitateen baliozkotze prozeduran.
  - f) Espedientea ordezkari baten bidez eskatzen bada, ordezkaritza hori egiaztatu egin beharko da.
  - g) Eskari egilearen adierazpena, dioena emandako datuak egiazkoak direla eta badauzkala prozeduran eskatzen diren jatorrizko agiriak. Agiri horiek prozedurako edozein unetan eskatu ahal izango ditu organo eskudunak, baita azalpenak ere, edo eskaria baloratzeko eta baldintzak betetzen direla ziurtatzeko beharrezkoak izan daitezkeen agiri osagarriak.
- c) eta d) ataletan aipatutako agiriak bide diplomatikoz legalizaturik aurkeztu beharko dira, edo, bestela, Hagako zigiluarekin. Europako Batasuneko herrialdeek edo Europako Ekonomia Eremuari buruzko hitzarmena sinatu dutenek edo Suitzan egindako dokumentuei ez zaie baldintza hori eskatuko. Beharrezkoa izanez gero, gaztelaniara egindako itzulpen ofiziala aurkeztu behar da.
2. PIEBek txostena egingo du, non adieraziko duen kasuan kasuko tituluak betetzen dituen ala ez osasunaren arloko kredituen baldintzak. Txosten hori bidaliko zaio eskaria egin duen Psikologia Fakultateari.
  3. UPV/EHUko Psikologia Fakultateak, ikusita PIEBen txostena, erabakiko du aurkeztutako eskaria onesten duen ala ez, eta erabakiaren berri emango dio interesdunari edo haren ordezkariari.
  4. Aldeko erabakia jasotzen duten eskari egileek "Osasun Psikologia Orokorra" unibertsitate masterra baino ezingo dute egin. UPV/EHUren beste master batzuk egiteko, eskaria UPV/EHUK ezarritako prozedurari jarraituta aurkeztu beharko dute.